

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Nafarroako Ogasunak 6 euro berreskuratu zituen 2017an bere aurrekontuko euro bakoitzeko iruzurraren aurkako borrokari esker

*Lehendabiziko aldiz, NZOak urteko jardueren memoria landu eta argitaratu du, eraginkortasunari buruzko adierazle hori ere zehaztu duelarik*

Ostirala, 2018.eko martxoak 23

2017ko ekitaldian, Nafarroako Zerga Ogasunak (NZO) 6 euro berreskuratu zituen iruzurraren aurkako borrokari lotutako ekintzetan bere aurrekontuko euro bakoitzeko. Halaxe zehaztu du, berreskuratutako diruaren



eta zerga-kontrola garatzeko inbertsioaren arteko zatiketaz kalkulaturako eragintasunaren adierazleak.

Gainera, jardunaren adierazlearen arabera, Ogasuneko enplegatu bakoitzeko, zerga-kontrolari dagozkion 506.000 euro bildu ziren, aurreko urtean baino % 19,23 gehiago; zerga-kontrolako jardueraren indizeak zerga-kontrolatik datorren guztizko zerga-bilketaren portzentajea islatzen du, % 5,98koa, 2016koa % 9,32 hobetu duelarik. Azkenik, zerga-bilketa likidoaren kostua aztertuz, Administrazioak 72 zentimoko gastua egin behar du 100 euro biltzeko.

Adierazle horiek guztiak eta bestelako datuak bilduz, erakunde autonomoak lehendabizi landu eta argitaratu du “Nafarroako Zerga Ogasunaren Memoria” deritzon jardueramemoria, Luis Esain zuzendari gerenteak gaur ezagutzera eman duena.

Haren hitzetan, “urteko memoria landu eta argitaratzea, Ogasuna erakunde autonomotzat sortu zen 1999. urteko

estatutuetan aurreikusita zegoen betekizuna da. Orain gardentasunezko ariketa gisa egin da lehendabiziko aldiz, erakundea interesatuta dagoen edozein pertsonari ezagutzera emateko asmoz; hala nola, Administrazioako langileei, ikertzaileei, gizarte-eragileei eta beste erakunde batzuei”.

Halaber, Esainek azaldu du lana ederki kostata egin dela horrelako memoria bat egituratzeko behar den informazio kopuru handiagatik. Nolanahi ere, [2017koa](#) landu eta html formatuan argitaratzeaz gain, [2016koa](#) ere jaso da, bata zein bestea online kontsultatu ahal izateko. Aurrerantzean, ekitaldi bakoitzeko urteko memoria hurrengo urteko lehen hilabeteetan aurkeztea da helburua.

### **NZOren diru-sarrerak**

Memoriatik ondoriozta daitekeenez, Nafarroako Zerga Ogasunak markako diru-sarrerak izan zituen 2017an: 4.959 milioi euroko guztizko zerga-bilketa. Itzulketen (1.276 milioi euro) kenketa eginik, zerga-bilketa likidoa 3.682 milioi eurokoa izan zen (2016an baino 432 milioi euro gehiago), historia osoko kopururik handiena lortuz.

2017an izandako zerga-bilketa handiago hori estu-estu lotuta dago Nafarroako Parlamentuak 2015ean onartutako erreforma fiskalarekin, 79,6 milioi euroko eragina izan baitu zerga-bilketaren gainean; baita Hitzarmen Ekonomikoaren erregularizazioak eragindako diru-sarrera handiagoeekin ere, 72,8 milioi euro. Bi faktore horien baturak (153,8 milioi euro) zerga-bilketan izandako igoeraren % 35,6 suposatzen du. Gainerakoa, Esainen esanetan, “egoera ekonomiko hobearen ondorioa” da. Gainera, 2017an, zerga-kontrolako jardueraren emaitza (iruzur fiskalaren aurkako borroka barne hartuta) 160,1 milioi eurokoa izan zen, aurreko urtekoa baino % 19,6 handiagoa.

### **470.368 arreta urtebetean**

Nafarroako Zerga Ogasunak 316 langilez osatutako plantilla zuen 2017ko abenduaren 31n, horien bi heren emakumeak izanik. Hala ere, goi-karguetan (zerbitzu eta gerentzia zuzendaritzak), % 70 gizonak dira. 2017an, langileei zuzendutako aurrekontua 26,6 milioi eurokoa izan zen.

Egoitzei dagokienez, Errentaren Kanpainan Nafarroaren iparraldean zergadunei arreta egiteko bulego baten irekiera izan da 2017ko gertaerarik nabarmenena, Iruñean, Burlatan, Barañainen, Tuteran, Tafallan eta Lizarran daudenen osagarri.

Bulego hauek dira zergadunarekiko harremanetarako bide nagusia (urtean 255.900 arreta egin ziren, % 56 Iruñean). Telefono bidezko arretan 197.831 dei jaso ziren, eta posta elektronikoko bidezko 16.637 mezu. Guztira, 470.368 arreta egin ziren, eta emaila da gehien hazten ari den harremanetarako bidea (% 6,2). Horren harira, iazko urrian gogobetetze-maila neurtzeko egindako telefono bidezko inkestan, jasotako arretak 10 puntutik 7,72ko kalifikazioa lortu zuen.

Bestalde, memoriak argitu duenez, urtean hamar kexa inguru jaso dira, bereziki euskarazko arretarik ezagatik, pertsonalaren eskasiagatik edota zerga-adierazpenak telematikoki aurkezteko betebeharragatik. Hain zuzen ere, azken puntu horri buruz, Nafarroako Ogasunaren webguneak 227.188 erabiltzaile desberdinek egindako 4,5 milioi bisita jaso zituen iaz, 414.111 adierazpen online aurkeztu ziren, eta BEZarena bezalako

adierazpenen kasuetan, gehienak (% 85) telematikoki aurkeztu ziren.

### **Beste administrazio batzuekiko informazio-trukea**

Nafarroako Zerga Ogasunak memorian nabarmendu duenez, beraren jarduera, hein handi batean, beste erakunde batzuekiko lankidetzari lotuta dago, eta horren ondorioz, lankidetzaren hitzarmenak sinatuak ditu Estatuko beste lau ogasunekin informazio hartu eta emateko asmoz.

Garatutako jarduerari dagokionez, Nafarroaren eta Estatuaren arteko Hitzarmen Ekonomiko berriaren negoziazioa eta bost urterako sinaketa finkatu ditu urteko gertakari nagusien artean, ECOFINek Bruselan egin ohi dituen bileretan erregulartasunez parte hartuz. Parlamentuarekin, Arartekoarekin eta Hitzarmen Ekonomikoaren Arbitraje Batzordearekin batera, 124 ekintza garatu ditu guztira. Azkenik, 2017an, Hezkuntza Departamentuarekin abiarazitako lankidetzaren nabarmendu du, Lehen Hezkuntzako eta DBHko ikasleei zerga-gaiei buruzko ezagutzak emateko xedez.

2017ko Memoriari dagozkion emaitza horiez gain, datozen urteetara begira, Nafarroako Zerga Ogasunak hainbat helburu zehaztuak ditu, gehien bat hari dagozkion tramiteen kudeaketa telematikoa eta biztanleen zerga-informazioa eta zerga-heziketa hobetzeko asmoz.

Azkenik, zerga-kontrolaren arloan, kanpoko nahiz barneko informazio-sistemen integrazioa hobetu nahi da. Horrekin batera, ezkutuko ekonomiak Nafarroan duen pisuari buruzko ikerketa egiten da, eta egun azterketa-gararian dauden onartutako lan-eskaintza publikoetan zehaztutako plantilla handitzea burutuko da.